

Zaindu txapela

133 nekazaritza eta txistor postu jarriko dira aurten Donostiako kaleetan

 Gainean dugu Santo Tomas eguna. Ordu batzuk besterik ez dira falta baserritarren festa ospatzeko. Aurten guztira txistor eta baserriko produktuen 133 postu jarriko dira: 65 Gipuzkoa enparantzaren, 54 Konstituzio plazaren, 8 Sarriegi plazaren eta beste 6 San Juan kalean. Ohi bezala, KTE Kultur eta Turismo Ekintzetxeak, baserritarren barazki eta animalia onenak sarituko ditu.

Kapoiak eta euskal oiloen lehiaketa —Ignazio Markuleta izenekoa— San Juan kalean egingo da; barazki eta fruitu lehiaketa, berriz, —Jose Salaberria deritzona— Konstituzio enparantzaren. Lehia ez da nolanahikoa izango; izan ere, baserritarrek Santo Tomas egunean beren produktu onenak ekartzen dituzte: barazkiak, etxeko ogi goxoa, gazta, eztiak, txakolina, sagardoa eta abar.

Baserritarrak izango dira Konstituzio enparantzara iristen lehenak, goizean goiz. Lehiaketan parte hartu nahi dutenen produktuek proba batzuk igaro beharko dituzte: ikusketa, neurketa eta pisaketa, besteak beste. Hegaztiak, moten arabera sailkatu eta kaiotan sartuko dituzte. Ordu batzuk beranduago txistor postuetako lagunak iritsiko dira. Gehienak ikaste-txeetako ikasleak edo elkarte-etako kideak izango dira.

Ofizialki, goizeko 10:00-etan hasiko da feria. Ordurako dena prest egongo da Konstituzio enparantzaren. *Kattalin*, aurten zozketatuko den txerrama, bere kaiolan sartuta egongo da. Jose Mari Odriozola eta Jose Mari Zabala koinatuek hazi dute, Ilunbe aldean dagoen Etxeberri baserrian.



egitaraua

Abenduak 21, asteartea

- 10:00-20:00** Txistor, talo, ogi, gazta eta sagardo salmenta ohiko tokietan. Amaitzeko, *Kattalin*-en zozketa, Konstituzio enparantzaren.
- 10:30-12:00** Txistor lehiaketa, Gipuzkoa plazan.
- 11:00-15:00** II. Artisan lantegia, Txurruka kalean.
- 11:30** Txorimalo Lehiaketaren sari banaketa, Bulebarrean.
- 11:30** Amona Tomasa, Txistor eta Porreren eskutik kalejira.
- 12:00** Herri kirolak, Trinitate enparantzaren. Nartxi Saralegiren Oroi-menezko finala.
- 12:30** Baserriko kapoi eta oilasko, eta barazki eta fruituen lehiaketaren sari banaketa, Konstituzio plazan.
- 13:00** Bertsolariak: Iturriaga eta Murua, Abuztuaren 31 kalean.
- 16:00 eta 18:00etan** Txirri, Mirri eta Txiribiton, Antzoki Zaharrean.
- 17:00** Haurrentzako jaia, Bulebarreko kioskoan.
- 20:00** Erromeria, Eztanda taldearekin, Bulebarreko kioskoan.



Batzuek gogor lan egin behar izaten dute besteek talo eta txorizo gozosa jateko.

EGUNKARIA

Txerriaren zozketa

Behin jendea hurbiltzen hasi ondoren, Zorroaga fundazio-ko kideek txerrama eskuratzeko txartelak saltzeari ekingo diote. 20.000 txartel saltzen dituzte urtero. 500.000 pezeta irabazten dituzte zozketarekin eta irabaziak Zorroaga fundazioaren zahar-etxean berrikuntzak egiteko erabiltzen dira.

Donostiar gutxiak huts egingo diote gaurko zitari. Ohitura da Konstituzio enparantzara jo, txerrama ikusi, txartel bat erosi, baso-erdi bat —gutxienez— edan, eta txistor pintxo bat jatea, egunak ekarriko duen lurrikara zalapartatsuari aurre egin ahal izateko. Beraz, zaindu txapelak.



EGUNKARIA



Baserriko produktu bikainak ikus daitezke urtero azokan.